EKIALDE HURBILA

*1967ko ekain hartako sei egun nahikoak izan ziren Israelgo armadak inguruko herrialde arabiarretako armadak garaitzeko, Gaza, Zisjordania, Golan Garaia eta Sinai Penintsula bereganatuz. Sinai egipziarrei 1982an itzulita, gainerakoak bere esku daude.*

# ISRAELEK SEI EGUNETAN IRABAZITAKO GERRA

Israelgo zerbitzu sekretu militarrak etsaiari buruz jakin beharreko guztia zekien. Egiptoko hegazkinetako gidarien izen eta abizenak ezagutzen zituen, eguneko beren unerik ahulena ere bai, 8:45ean, gosariari ekiteko unean.

Une horretantxe, duela 30 urteko ekainaren 5ean, Israelgo aire armadak ezustean harrapatu zituen hegazkin egipziarrak. Sei ordu geroago honako agiria kaleratu zuen Israelgo aire armadak: «... *Egipto, Jordania, Siria eta Irakeko aire armaden aurka jardun dugu eta gaur bertan 400 hegazkin bota ditugu*». Egiptok 300 hegazkin galdu zituen, eta horietako % 90ek aireratzeko denborarik ere ez zuten izan.

«*Gure helburua Israel suntsitzea izango da*», zioen Gamal Abdel Nasser Egiptoko lehendakariak maiatzaren 27an. Historiak, aldiz, arabiarren porrot azkarra deskribatzen duen izena eman zion gerra honi: Sei Egunetako Gerra. Lehen egunean aire armadari egokitu zitzaion, hurrengo bost egunetan infanteria eta zaldieria blindatuak jokaldia biribilzea lortu zuten, Israelgo lurraldea hirukoiztuz.

Guda gogorrenak Sinaiko basamortukoak izan ziren. Egipziarrek, 100.000 soldadu eta 1.000 bat tanke zituzten bertan, gehienak sobietarrei erositakoak. Aurrez aurre, eta hiru pasabideetatik aurrera egi-nez, 400 tanke —estatubatuarrak eta frantsesak eta zahar samarrak— eta 50.000 soldatu israeldar. Sinai eta Gaza lau egunetan hartu zituzten. Une berean, israeldarrek samur menperatu zuten Jordaniako Husseinen Legio arabiarra, Jordan ibairainoko lurrak eta Eki Jerusalem bereganatuz. Iparralderago, Israelgo armada Damaskoko sarreraraino iritsi zen baina atzera egin zuen Golan Garaietako lur estrategikoetan finkatzeko. 1982an Israelek Sinaiko lurrak itzuli zizkion Egiptori; gainerakoak bere esku daude oraindik.

## Soldadu israeldarren motibazioa izugarria zen, Israelen etorkizuna euren eskuetan ikusten baitzuten

Aditu militarren esanetan, lau arrazoi nagusi daude Israelen garaipen azkarra azaltzeko: Israelgo zerbitzu sekretuek egindako lan ona, erasoaren ezustekoa, unitate blindatuen mugikortasuna eta soldaduen motibazioa, hauek erabat barneratua zuten Israelen iraupena beren eskuetan zegoela. Arabiarrei dagokienez, Sinain preso egindako general arabiar batek horrela azaldu zuen bere ikuspuntua: «*Entrenatu beharrean, hesi zaharkituak margotzen ematen genuen denbora*».

Sei Egunetako Gerrak Ekialde Hurbileko paisaia estrategikoa eta politikoa erabat aldatu zuen: armada arabiarrak suntsituta, palestinarren eta israeldarren arteko borrokak lehen lerrora agertu ziren, israeldarrek Gaza, Zisjordania eta Eki Jerusalem kendu baitzizkietan palestinarrei. Yariv generala orduko armadako zerbitzu sekretuetako buruaren berbak igarlearenak ziren: «*Okupatutako lurraldeekin, Israelen populazio arabiarra 1.120.000 biztanletan hazi da. Subertsioaren arazoa azaleratzen ari da eta alde horretatik arazo larriak izango ditugulakoan nago*».



■ Moshe Dayan, Sei Egunetako Gerrako general isreldar ospetsua



■ Yithzak Rabin lehen ministro laborista 1995ean hil zuten.

**PALESTINARRAK.** 1968ko urtarrilean Arafat ez zen PAEko (Palestinaren Askapenerako Erakundea) buruzagia baina bai Al-Fatahkoa (konkista esan gura du), gerora PAEn talderik indartsuena izango zena. Gerratik sei hilabetera, Arafat jadanik esaten ari zen palestinarren nazio kontzientzia sortu eta bultzatu behar zela, bestela palestinarren arazoak israeldar-arabiarren gatazka orokor horretan galduta geratuko zelako.

Arafatek ez zuen porrot militar hura onartu eta erresistentzia palestinarra antolatu zuen. 1968ko martxoaren 21ean, Al Fatah-ko mila gerrilarik, gogor eutsi zioten 15.000 soldadu israeldarren erasoari.

Horrela, bada, Arafatek eta PAEk Israelen aurkako borroka armatu luzeari ekin zioten palestinarren auziari nazioarteko oihartzuna eman guran. 1970eko Irail Beltzean, gerrilari palestinarrak Jordaniatik kanporatuak izan ziren eta 1982an, Libanoko gerra zibilean, bakarrik geratu ziren Israelgo armadaren aurrean: Beirutetik ere kanporatuak izan ziren.

1987an Intifada lehertu zen. Zisjordania eta Gazako palestinarrek okupazio militarrari epe laburrean konponbide zehatza ematea eskatu zutenean. PAEko buruzagitza irtenbide negoziatuan pentsatzen hasi zen, areago nazioarte mailako gertakizunen abiada ikusita. Intifada hasi eta urte gutxira, palestinarren aliatua izandako inperio sobietarra hondoratu zen, Golkoko Gerrak Irak aliatua suntsitu zuen eta, aldi berean, estatubatuarren jarrera aldaketa hasi zen. 1992an Israelgo eskuinak boterea galdu eta Rabin / Peres garaia hasi zen. Sasoi berriak ateak zabalik aurkitu zituen eta PAEk eta Israelek NBEko (Nazio Batuen Erakundea) 1967ko 242 ebazpenean funtsatutako «*lurraldeak bakearen ordez*» printzipioan oinarritutako akordioa lortu zuten.

### 1967KO ISRAELEN KONKISTAK




**SEI EGUNETAKO SINDROMEA.** Israelentzat, 67ko konkistek ordura arte ezagutu gabeko sentsazioak eragin zituzten: gobernu laboristek laster kolonizatu zituzten lurralde berriak segurtasun militarra zekarkion Israeli, etsai garaitu berria ezin baitzen lurralde zabal horietatik iritsi. Ideologia desberdinetako israeldarrek, lehenbizikoz, segurtasun militarra ezagutu zuten. Segurtasun horrek Golda Meir lehen ministroa herri palestinarraren existentziaz ironiaz berba egitera eraman zuen. Laster damutuko zen, ordea, 1973an arabiarrek gerra berri batekin ezustean harrapatu baitzuten Israel. Estatu juduak ez zuen lurralderik galdu baina bai bizitza asko eta honek segurtasun militarraren sinesmena hautsi zuen. Meir-ek, ordea, segurtasunaz gain, arabiarrekiko laugarren gerra honen ondorengo hauteskundeetan lehen ministroaren aulkia galdu zuen eta Likudeko eskuintiarrak iritsi ziren boterera; Menahem Beguinek konkistatutako lurraldeak defendatuko zituela irragarri zuen.

Beginek ederto asko zekien Egipto barik —herrialde indartsuena— arabiarrak ezin izango zirela gerrara itzuli. Beraz, Sinaiko lurraldea itzuli eta 1979an Camp David-eko akordioak sinatu zituen Egiptorekin bakarrik. Sinai itzuli zuen baina fronte arriskutsuenek bere esku jarraitzen zuten eta gainera Jeruralem, Golan edo Zisjordania osoa bereganatzen kontzentra zitekeen. Lurralde okupatuen kolonizazioaren sasoia hasi zen: urte bitan, Likudek 100.000 kolonotik gora bidali zituen. Okupazioa garratza izan zen palestinarrentzat, israeldarrek ondasun ekonomikoak bereganatuz gain, eskubide demokratikoak ukatu zizkieten palestinarrei. Zisjordaniaren erdia baino gehiago israeldarren esku geratu zen.

Libanoko gerraren ondorioz, 1993an, Beginek dimititu egin zuen: PAE Beirutetik kanporatzea lortu zuen baina Israelgo armadan ere hildako eta zauritu asko izan ziren. Likudek, hala ere, gobernuan jarraitu zuen, lurralde okupatuetako giroa arnastezina bihurtzeko adina. 1992an laboristak gobernura iritsi ziren Yitzak Rabinen eskutik eta 1993an, Washingtonen bakea sinatu zuten PAErekin. Zisjordania eta Gazako lurralde gehiena hartzen zuen autonomi estatutua lortu zuten. Jerusalemera zelanbaiteko sarrera izango lukeen etorkizuneko estatua ere aurrikus zitekeen.

Okupazioak sorrarazitako mugikortasun ezak, kolonoak eta eskuinaren aldeko kanpaina gogorra plazaratu zuten; Rabinen heriotzerako giro aproposa sortuko zuen kanpaina, 1995eko azaroaren 4an muturreko judu batek generaI ohia hil baitzuen. Urte erdi geroxeago, Likud boterera iritsi zen Netanyahuren eskutik ●

JOAN ROURA
ARGIA-EL TEMPS

## ■ Israel barrutik gainbehera etikoa salatzen

Oro har Sei Egunetako Gerrak Israelen sortu zuen poz giroaz gain, izan ziren berau gogor kritikatu zutenak ere, horien artean Yashayahu Leibowitz (1903-1994), medikuntzan doktorea eta Jerusalemeko Unibertsitate Hebreoko irakaslea.

1983an, Libanoko okupazioaren une gorienean, zera adierazi zuen: «*Zisjordania eta Gazako okupazioa eta Israelen beste herri baten gaineko —palestinarrena— zapalketa, gure herriaren gainbehera etiko eta moralaren hasiera da*». Erabat ezkorra zen 1930ean etorri zenetik berak hazten lagundutako herrialdearen etorkizunaz.

Ez zuen legarrik ahoan eta luma ere zorrotza zuen irakasleak. Probokazio maila handietara iritsi zen, «Judutar-nazia» berbarekin, adibidez. Berba horrekin deskribatzen zuen zuen Sei Egunetako Gerraren ondoren sortutako okupazio irredentistaren ideologiari. Leibowitzek Europan bizi izan zuen Holokaustora eraman zuen semitismoaren aurkako giro gogorra, eta juduak beste herri bat zanpatzen ikustea jasan ezina zuen.

Libanoko okupaziora joateari uko egin zioten soldadaduen babesle izpirituala ere bihurtu zen. Gerora Zisjordania eta Gazan patruilatzeari uko egin dion Yesh Gvul soldaduen mugimendua ere babestu zuen. 1993an, bake prozesuaren beroenean, Leibowitz Israel Saria jasotzeko izendatu zuten baina azkenean presio politikoek atzera bota zuten. Hurrengo urtean hilgo zen ●